



ERABAKIA, ERALDAKETA DIGITALAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, FORMALIZATZEKO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK "EUSKOIKER FUNDAZIOA" BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUARI EGITEN DION ZERBITZU ENKARGUA, PROIEKTU PILOTU BAT KUDEA DEZAN BIKI DIGITAL BAT SORTZEKO ETA ZENBAIT IRAKASGAI METABERTSOAN (METABERTSITATEAN) MODU ESPERIMENTALEAN ESKAINTZEKO.

Leioa, 2023ko azaroaren 21a.

Juan José Unzilla Galán jaunak, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak, unibertsitatearen izenean eta haren ordezkari diharduela, eta UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkion eskumenak erabiliz (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko erabakia, 2021eko otsailaren 12ko EHAA), honako hau

ADIERAZTEN DU

LEHENENA: Erabaki hau dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen mende (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, aurrerantzean, SPRL), zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten den Espainiako antolamendu juridikora.

BIGARRENA: SPKLren 32. artikulua honako hau dio: *1. Botere adjudikatzailleek beren burua antolatu ahalko dute obra-, hornidura- eta zerbitzu- kontratuen eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen berezko prestazioak zuzenean emateko beste pertsona juridiko batez baliatuta, hari alde aurretik mandatua emanda eta tarifa bidezko ordain baten truke; horretarako, artikulua honetan xedatutakoari jarraituko diote, eta betiere erabiltzen duten pertsona juridikoak, zeina zuzenbide publikokoa zein zuzenbide pribatukoa izan baitaiteke, beren bitarteko propio pertsonifikatuaren kalifikazio juridikoa merezi behar du (...)*.

HIRUGARRENA: Artikulu horren arabera, Euskoiker Fundazioa UPV/EHUren bitarteko propio bat da, eta horixe adierazten du espresuki Fundazioaren Estatutuen 33. artikulua. UPV/EHUK oniritzia eman zien Estatutu horiei, Gobernu Kontseiluaren 2021eko uztailaren 20ko Erabakiaren bidez.

LAUGARRENA: Fundazioaren Estatutuen 2. artikulua arabera, haren helburu nagusia da "servir de agencia de enlace entre la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea y la Sociedad Vasca, para la promoción y desarrollo de fines culturales, y en especial la realización de actividades educativas y fomento de la investigación".

Helburu nagusi hori betetzeko, honako zeregin hauek beteko ditu:

- a) Unibertsitate-empresa harremanak sustatzea.



- b) Unibertsitate jardueraren edozein alorretako azterketa eta ikerketa proiektuetan Euskal Herriko Unibertsitatearen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko harremanak kudeatzea, kontratua formalizatuta eta finantzabideak bilatuta.
- c) Materiala erosten laguntzeko eta unibertsitateko ikerketara bideratutako saila izatea.
- d) Enpresan unibertsitateko ikerlariak eta industria ikertzaileak ikerlariak unibertsitatean birziklatzeko programak antolatzea.
- e) Modalitate desberdinetan, enpresa eta unibertsitatearen arteko adituen trukea sustatzea eta ikerlarietarako lanpostuak sortzea.
- f) Patenteen ustiaketa eta jabetza eskubideak kudeatzea, eta horietatik eratorritako gaiak eta arazoak ebatzea.
- g) Bidea erraztea unibertsitateak enpresari transferitzeko bere ikerlan balizko edo konkretuak, eta, oro har, gizartean zabaltzea unibertsitateak sortutako ezagutza berriak.
- h) Unibertsitatean industriaren eta gizartearen beharrak ezagutzera ematea.
- i) Ikerlarien artean informazio trukeak sustatuko dituzten ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak eta kongresuak antolatzen eta horiek aplikatzen laguntzea.
- j) Unibertsitateko ikerketa unitateen eta enpresa eta gizarte beharren inbentarioa beti eguneratuta izatea, beren funtzio eta zerbitzuekin
- k) Edozein motatako jarduerak edo lanak egitea; horiek, lehen aipatutakoekin lotuta (prestakuntzakoak edo osagarriak), oinarritzko helburuak garatzen lagundu beharko dute.

BOSGARRENA: UPV/EHUK uste du beharrezkoa dela proba pilotu bat egitea, biki digital bat sortuz eta zenbait irakasgai metabertsoan (metaunibertsitatean) modu esperimentalean eskainiz, ikusteko teknologia horrek zelako aukerak eskaintzen dituen irakaskuntzarako eta ikerketarako epe ertain eta luzean.

SEIGARRENA: Euskoiker Fundazioaren Estatutuak kontuan hartuta, UPV/EHUren ustez fundazioa, unibertsitatearen bitarteko propioa den aldetik, inork baino hobeto egin ditzake gestioak proba pilotu honetarako baliabideak lortzeari begira, biki digital bat sortu eta zenbait irakasgai metabertsoan modu esperimentalean eskaini ahal izateko.

Horiek horrela, honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Formalizatzea eta arautzea UPV/EHUK Euskoiker Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) egiten dion enkargua, BALDINTZAK atalean zehaztutakoaren arabera.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUren kontratatzailearen profilean argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Euskoiker Fundazioari jakinaraztea.



BALDINTZAK

LEHENENGOA. – BALDINTZA OROKORRAK

UPV/EHUK Euskoiker Fundazioari, bere bitarteko propio pertsonifikatua den aldetik, egiten dion enkargu honek ez du aldatuko unibertsitatearen jarduerari loturiko obren, instalazioen eta ekipamenduen titulartasuna (UPV/EHUK jarraituko du izaten titularra), eta ez du eraginik izango ere ikerketen emaitzen titulartasunean, ezta sor daitezkeen jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubideetan ere (eskubide horiek UPV/EHUREnak eta haren irakasle-ikertzaileenak izaten jarraituko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera).

Era berean, enkargu honek ez du esan nahi eskumenaren titulartasuna lagatzen denik, ezta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzen direnik ere, eta enkargua egiten duen organo edo erakundearen erantzukizuna izango da enkarguaren xede den jarduera material zehatzaren euskarri diren egintza edo ebazpen juridiko guztiak ematea. Halaber, UPV/EHURI dagokio enkargu honen xede diren jarduerak eta ekintzak zuzentzea eta planifikatzea, horrek eragotzi gabe jarduera horiek fundazioarekin koordinatzea.

UPV/EHUK bakar-bakarrik kontrolatuko ditu zuzenean Euskoiker Fundazioak enkargua gauzatzeko betetzen dituen zereginak, ez besterik.

Enkargu hau egiten da Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 32. artikulua eta aplikatzekoak diren gainerako arauen babesean, eta efizientzia eta eraginkortasuneko eta errentagarritasun ekonomikoko arrazoiek justifikatzen dute, kontuan hartuta Euskoiker Fundazioak baduela nazioartean kontakturik helburua betetzeko.

BIGARRENA. -- ENKARGUAREN XEDEA

UPV/EHUK Euskoiker Fundazioari, bere bitarteko propioa den aldetik, egiten dion enkarguaren xedea da proiektu pilotu bat kudeatzea biki digital bat sortzeko eta zenbait irakasgai metabertsoan modu esperimentalean eskaintzeko.

Enkarguan prestazioa gehiago eskatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Dagokion administrazio espedientea bideratu beharko da, jasota uzteko nahikoa kreditu dagoela proposatu den gehikuntzari aurre egiteko.
- Hasieran enkargatutakoen mota bereko lanak izango dira, epeak luzatu arren edo lanak egiteko lan taldeak handitu arren.
- Prestazio berriak sartu ahal izango dira, baldin eta lotura zuzena badute hasieran enkargatutako prestazioekin.

Euskoiker Fundazioak nahitaez egin beharko ditu enkargatzen zaizkion lanak, ezarritako jarraibideen arabera.



HIRUGARRENA. -- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Euskoiker Fundazioak kudeatuko ditu enkargatutako lanetarako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eta fundazioak kontratatutako pertsonak ez dute inolako lan edo administrazio loturarik izango UPV/EHUrekin.

LAUGARRENA. - AZPIKONTRATAZIOA

Euskoiker Fundazioa UPV/EHUren bitarteko propio pertsonifikatua izanik, eta kontuan hartuta haren xede soziala, haren lantaldearen kualifikazioa, prestakuntza eta esperientzia eta fundazioaren baliabideak, guztiz justifikatuta dago enkargu hau berari ematea, sostengu teknikoko lanok egin ditzan bere bitartekoak erabiliz.

Horregatik, konkurrentzia publikoari, ez-diskriminazioari eta publikotasunari buruzko Estatuko eta EBko printzipio eta arauak betetzeko, Euskoiker Fundazioak ezin izango du azpikontratatu enkargatu zaion lanaren funtsezko zatia.

Gainera, Euskoiker Fundazioak ez die lagako, azpikontratatu edo transmitituko hirugarrenei enkargu honetatik berari sortutako eskubiderik edo betebeharririk, aurretik UPV/EHUren baimen idatzia izan gabe.

Euskoiker Fundazioak baimena eskatu beharko dio UPV/EHUko errektoreari azpikontratazioak egiteko. Baimen eskaera behar bezala justifikatu beharko da, eta bertan honako hauek zehaztu beharko dira: kontratatu nahi diren lan zehatzak, haien kostua, kontratista nor den, zein den haren jarduera nagusia eta egin dituen antzeko lanen zerrenda, bere egokitasun eta gaitasunaren froga. Eskaerarekin batera, entregatu beharko da kontratatuko den erakundearen espezializazioa egiaztatzen duen dokumentazioa, bai eta erakunde horrek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria ere.

Euskoiker Fundazioa ez da bere betebeharretatik salbuetsita geratuko kontraturen bat egin arren enkargu honen parteren baten inguruan edo betebeharren bat delegatu arren kontratuaren parteren bat betetzeko. Beraz, Euskoiker Fundazioa izango da erantzule bakarra azpikontratuetatik sortutako betebeharreri dagokienez eta haien inguruko balizko erreklamazioei dagokionez, eta obligatu nagusia izango da dena delako azpikontratista, mandatudun edo aholkulari independentearen ekintza edo omisioengatik, eEuskoiker Fundazioak egin balitu bezala enkargu hau betetzean.

BOSGARRENA. – ENKARGUA FINANTZATZEKO AURREKONTUA, ENKARGUAREN TARIFAK ETA AZPIKONTRATATUTAKO ZERBITZUEN KONTRAFAKTURAK

Enkargu honen jarduerak finantzatzeko gehieneko aurrekontua 16.000 € izango da.

Gehieneko hori kalkulatu da egin beharreko jarduerak aurreikusita, eta atal hauek ditu:

- Enkargu hau betetzeko Euskoiker Fundazioak bere giza baliabideekin eta baliabide materialekin zuzenean egingo dituen jardueren finantzazioa.
- Tarifa konpentsazio bat, Euskoiker Fundazioak jasoko duena enkargua betetzean sortzen zaizkion kostuak ordaintzeko. Kalkulatutako prezioa 750 € da.



SEIGARRENA. -PROBA PILOTUAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Proba pilotu hau gainbegiratzeko, jarraipen batzorde parekide bat sortuko da, UPV/EHUko eta Euskoiker Fundazioko kideek osatua. Bi kide Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errektoreordetzak izendatuko ditu, eta beste biak, berriz, Euskoiker Fundazioak. Batzordea urtean bitan batuko da gutxienez, proba pilotua aztertzeko.

ZAZPIGARRENA. - - EUSKOIKER FUNDAZIOAREN MARAZTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Euskoiker Fundazioak ardura eta maraztasun handienaz zainduko ditu UPV/EHUren interesak lanak egitean. Euskoiker Fundazioko kideek isilpean gordeko dituzte enkargua betetzean jakiten dituzten gertakari, datu eta informazioak, bai eta enkargua amaitutakoan ere.

ZORTZIGARRENA. - DATUAK BABESTEIA

Enkargu honetako lanak egitean, datu pertsonalak babesteko indarreko legeria bete beharko du Euskoiker Fundazioak, hau da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; eta aplikatzekoak diren beste guztiak. Bi aldeek konpromisoa hartzen dute konfidentzialtasunaz tratatzeko enkargu hau edo bertatik sortutako beste edozein akordio espezifiko betetzean elkarri ematen dioten informazioa.

UPV/EHUren bitarteko propioa den aldetik, enkargu hau betetzean Euskoiker Fundazioak izango ditu tratamendu arduradunek indarreko arauen arabera dituzten betebeharrak.

BEDERATZIGARRENA. - INDARRALDIA

Enkargu honek ondorioak izango ditu Euskoiker Fundazioari jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrera. Bi urteko epea aurreikusten da lanak egiteko.

HAMARGARRENA. - GARDENTASUNA

Pertsona guztiek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea bermatze aldera, Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikulua aplikatuz, enkargu hau UPV/EHUren Gardentasun Atarian argitaratuko da.

HAMAIKAGARRENA - ENKARGUA ALDATZEA

Enkargua aldatu ahal izango da amaitu aurretik, errektoreordetza eskudunaren erabaki baten bidez. Aldaketa idatziz jakinarazi beharko zaio, modu frogagarrian, Euskoiker Fundazioari, eta erabaki honi gehituko zaio eranskin gisa, erabaki honen parte bihurtuz. Nolanahi ere, hala dagokionean, enkargua aldatu egin beharko da aplikatu beharreko araudira egokitzeko.

**HAMABIGARRENA. - ENKARGUA SUNTSIARAZTEA**

Enkargu honen baldintzaren bat betetzen ez bada, modu arrazoituan suntsiaraztea erabaki ahal izango da. Kasu horretan, enkargua likidatuko da, eta konpentsazio eskubidea aitortuko zaio Euskoiker Fundazioari, burutzerara heldu den jarduerengatik.

HAMAHIRUGARRENA. – ARAUBIDE JURIDIKOA ETA AURREKO AKORDIOAK IRAUNGITZEA

Enkargu hau administratiboa da eta ordenamendu juridiko-administratiboak arautzen ditu haren interpretazioa eta garapena. Enkargua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko aplikatuko dira Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean edo hura ordeztzen duen araudian jasotako printzipioak.

Juan Jose Unzilla Galán

ERALDAKETA DIGITALAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA